

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2009KO UZTAILA

Euskal AEko industri jarduera % 25,9 jaitsi da 2009ko uztailean


Aurreko hilabetearen, hau da, 2009ko ekainaren aldean % 1,9 jaitsi da

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa 2008ko uztailaren aldean % 25,9 jaitsi da 2009ko uztailean.

Aurreko hilabetearen, hau da, 2009ko ekainaren aldean Euskal AEko industri produkzioa % 1,9 jaitsi da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundera



(*) 2009ko uztaileko urte arteko hazkunde zuzendua
Iturria: EUSTAT

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2009ko uztaileko indizearen bilakaera jaitsi egin da sektore guztietan, 2008ko uztailaren aldean: ekipamenduko ondasunak % 32,3 jaitsi dira, tarteko ondasunak % 29,6 jaitsi dira, energia % 12,2 jaitsi da eta kontsumo-ondasunak % 11,7; azken hauen beherakada, kontsumo-ondasun iraunkorrek (-% 35,1) izandako gutxitzearen ondorioz eman da batez ere, kontsumo-ondasun ez iraunkorrek beherapen txikiagoa izan dutelako (-% 2,4).

2009ko uztaileko hil arteko aldaketak, 2009ko ekainaren aldean, negatiboak izan dira industriako sektore garrantzitsuenetan: ekipamenduko ondasunak % 2,0 jaitsi dira, tarteko ondasunak % 2,4 eta energia % 2,5. Kontsumo-ondasunak, orotara, % 0,4 jaitsi dira kontsumo-ondasun iraunkorrek behera egin dutelako (-% 3,0). Bestalde, kontsumo-ondasun ez iraunkorrek % 0,3 egin dute gora.

Lurralde historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban % 28,5 jaitsi da, Bizkaian % 25,8 eta Gipuzkoan % 24,7.

2009ko ekainetik uztailera bitarteko tasak negatiboak izan dira hiru lurralde historikoetan: Araban % 1,3 jaitsi da tasa hori, Bizkaian % 1,6 eta Gipuzkoan % 2,4.

Taula: 2009ko UZTAILA. Euskal AEko Industri Produkzio Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	09Uzt/08Uzt	At/At-1 (1)	09Uzt/09Eka	09Eka/09Mai
Indize orokorra: Euskal AE	-25,9	-24,6	-1,9	-0,4
Araba	-28,5	-29,9	-1,3	2,8
Bizkaia	-25,8	-22,7	-1,6	-1,0
Gipuzkoa	-24,7	-23,9	-2,4	-1,2
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-11,7	-13,4	-0,4	-1,1
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-35,1	-29,8	-3,0	-8,3
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-2,4	-7,0	0,3	1,0
Ekipo-ondasunak	-32,3	-28,0	-2,0	-0,8
Bitarteko ondasunak	-29,6	-30,3	-2,4	-0,2
Energia	-12,2	-6,2	-2,5	0,6

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp